

IKERKETA ZIENTIFIKO ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO JARDUEREI BURUZKO ESTATISTIKA-I+G, 2015

Euskal AEko I+G gastua %1,3 murriztu zen 2015ean


Finantzaketa publikoa %1,1 gehitu; enpresen bidezko pribatua %3,1 jaitsi

2015ean Euskal AEn guztira 1.273,2 milioi inbertitu ziren Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoaren (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %1,3 gutxiago, EUSTATEN datuen arabera.

Dedikazio osoko ikertzaileak 12.089 pertsona (%+0,5 aurreko urtearen aldean); dedikazio osoko pertsona guztiak, %-1,7 gutxiago.

I+G gastua, BPGren %1,84 2015ean, ehuneko 8 ehunen gutxiago aurreko urtearen aldean. Eurostatek argitaratutako behin-behineko datuaren arabera, %1,22 Espainian (%51 gainera Euskal AE); 28-EBn, batez beste, %2,04 (Euskal AE %9,8 azpitik).

1 grafikoa: I+G gastuaren bilakaera, BPGrekiko (%)



* behin-behineko datuak

Iturria: Eurostat eta Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

Euskal AEko I+G gastuaren %74,7 enpresetan egikaritu zen

Enpresek I+G gastuaren %74,7 (951,0 milioi) egikaritu zuten; %18,4 (234,7 milioi), Goi-mailako Irakaskuntzak; %6,9 (87,5 milioi) Administrazioaren mendeko zenbait erakundek. Aurreko

urtearen aldean, enpresek %1,8 gutxiago gastatu dute, irakaskuntzak %1,3; Administrazioak %4,8 gehiago.

1 taula: Euskal AEko I+Gko barne-gastua, egikaritze-sekoreen eta fondoer jatorriaren arabera (mila euro). 2015

	Guztira	Administrazio Publikoa	Goimailako irakaskuntza	Enpresak	Irabaziasmorik gabeko erakunde pribatuak	Atzerriko etorriak
Guztira	1.273.207	424.661	37.101	708.866	2.930	99.649
Enpresak	951.008	175.188	624	691.901	848	82.447
Administrazio Publikoa	87.490	79.122	93	3.359	1.009	3.907
Goimailako irakaskuntza	234.709	170.351	36.384	13.606	1.073	13.295

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

I+G gastuaren finantzaketan, portzentajeak aurreko urteetako antzekoak dira. Finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 708,9 milioi bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %55,7; 1,8 puntu gutxiago 2014koaren aldean; I+Grako funts guztietan, %-3,1.

Finantzaketa publikoak, 424,7 milioi, %33,4; aurreko urtearen aldean 4 hamarren gehiago finantzaketa iturri gisa, %+1,1 kopuruetan. Goi Mailako Irakaskuntzak 37,1 milioi, funtsen %2,9, 2014an bezalaxe; atzerrian 99,6 milioi lortu ziren, %7,8, aurreko urtean bezalaxe. 2,9 milioi, %0,2 irabazi asmorik gabeko erakundeetatik.

2 taula: gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal Aen. 2007-2015

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
I+G Gastuak									
Guztira (Milioi euro)	1.090,3	1.263,9	1.280,9	1.360,3	1.366,2	1.372,9	1.316,8	1.289,8	1.273,2
Urteko gehikuntza (%)	20,1	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3
Pertsonala (DOB)*									
Guztira	14.435	15.373	16.690	17.532	17.879	18.682	18.280	18.535	18.217
Urteko gehikuntza	10,5	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5	-2,2	0,4	-1,7
Ikertzaileak (DOB)*									
Guztira	9.220	9.640	10.386	11.071	11.283	11.772	11.959	12.030	12.089
Urteko gehikuntza	13,2	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Langile enplegatuak, 18.217 DOBn (Dedikazio Osoko Baliokidetzan) Enpresen sektorean 13.087 langile (guztien %71,9); Goi-mailako Irakaskuntzan 3.979 (%21,8); Administrazio Publikoan 1.151 (%6,3).

I+G langileen %35,2, emakumeak

I+G dedikazio osoko langileen 6.414 emakumeak dira (%35,2); I+G jardueretan emakumeek duten parte hartzearen ehunekorik handienak Administrazio Publikoan eta Goi-mailako Irakaskuntzan dira, %55,1 eta %50,2. Enpresetan %28,9.

3 taula: I+G gastua egikaritza sektoreen arabera (%)

	2012	2013	2014	2015
Enpresak eta IAGEP	75,8	75,4	75,1	74,7
Herri administrazioa	6,3	6,4	6,5	6,9
Goi-mailako irakaskuntza	17,9	18,2	18,4	18,4

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

Aurreko urtearen aldean Enpresaren sektoreak jarraitzen du izaten ikerketa-ahaleginik handiena egiten duena, baina 4 hamarren gutxiagoz; parte-hartzea %74,7. Goi-mailako irakaskuntzaren portzentajea lehengoan (%18,4). Administrazio Publikoaren pisua lau hamarrenez gehitu 2006tik gertatu da enpresen parte-hartzearen jaitsiera, beste bien mesederako; halere I+G gastuaren hiru laurden pasa da oraindik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G. Datu bankua